



IRAGAN EGUN BATEZ



Doinuaren sortzailea: Mikel Laboa.

Bertso honen egilea: Fernando Aire "Xalbador" (1920-1976 Urepele, Behe Nafarroa).

Bertsoaren berri

"Herria eta hizkuntza" sorta "Odolaren mintzoa" liburuan argitaratu zuen Xalbadorrek. Bertan azaltzen du bi herritarren arteko eztabaida: bata frantsesez mintzo da, Euskal Herri aske baten alde. Bestea euskaraz mintzo da eta frantses sentitzen da. Bi lagun horien kontraesanak bistaratzen ditu sortan: "Bat herria goratzen arrotz baten gisa / arrotz nahiak berriz herriaren hitza". Xalbadorrentzat herria eta hizkuntza bat dira: "herria da gorputza hizkuntza bihotza".

Kantua ezagun egin zen Mikel Laboaren ahotsean; "Lau Bost" diskoan kaleratu zuen lehen aldiz (1980).

Iragan egun batez, ostatu **batean**,
bi lagun ari ziren ez ta ba **betean**;
biak ziren euskaldun zintzoak **ustean**,
halere ezin adi elgarren **artean**;
entzuten egon naiz omore **tristean**.

